



Haur, nerabe eta gazteen sustapena

udal-webguneetan aurkezteko gomendioak





SARRERA	3
OROKORRA	4
• Sarean egoteak dituen onura nagusiak	4
• Estiloari dagokionez, irizpide nagusiak	4
KASUZ KASU	6
• Udalak ez du baliabiderik, zer egin dezaket?	6
• Udalaren webgune orokorrean egoteak aukera dut, zer argitaratuko dut?	7
• Udalaren webgune orokorrean banago jada, zein hobekuntza egin ditzaket?	8
• Geure domeinua: HNGen sustapeneko webgunea sortzeko, zer egin behar dut?	11
KONTUAN IZAN BEHARREKO BESTE HAINBAT PUNTU	12






Sarrera

Gure arloari buruzko informazioa azaltzen duen webgune bat izatearen helburua da, erabiltzaileek erreferentziarako tresna bat eskuragarri izatea. Horrela, gure sailaren Informazio interesgarria euskarri bakar batean izango dugu. Ondoren, sare sozialak ere erabiliko ditugu komunikatzeko, baina euskarri nagusia webgunea izango da beti.

Jarraian erakusleho hori ahalik eta era egokienean antolatzeko gomendioak eskainiko dira. Lehenik eta behin, haur, nerabe eta gazteen Sustapena udalaren webgunean egoteak dakartzan onura nagusiak azalduko dira, eta horiek lortzeko komenigarriak diren irizpideak. Jarraibide horiek guztiak errealitate desberdinen arabera zerrendatuko dira; baliabide gutxien duten udaletatik hasi, eta baliabide asko dituzten herrietara iritsi arte.





Honakoak dira HNGen sustapen-arloan webgunea (eta sareak) izatearen **onura nagusiak**:

- Marka, irudi korporatibo eta erreputazio digitala indartu eta sustatzea.
- Marketina, publizitatea, irudi positiboa.
- Programen difusioa.
- Balio anitzeko zerbitzuak ezagutzera ematea.

Estiloari dagokionez, honakoak izango dira jarraitu beharreko irizpideak:

- **Dinamismoa:** Gazteentzako interesgarria den informazioa komunikatuko dugu, modu zuzen eta argian. Azpimarratu nahi duguna aurretik erabaki eta horri emango diogu indarra. Posible bada, ikus-entzunezkoak sortuko dira aldiro. Guk sortzeko baliabiderik ez badugu, besteek sortutako materialak erabili ditzakegu. Adibidez, “Beldur Barik” proiektuari buruz ari bagara, haiek *Youtuben* igotako aurkezpen bideoa igoko dugu.
- **Edukien tratamendua:** Idazkera beti berdina izango da, eta irudiak txertatzeko garaian ere antzeko tamaina eta estilo-irizpideak erabiliko dira. Asmoa da koherentzia izatea. Erabiltzailea idazkera eta argazki-eredu batetara ohitzen bada, ondoren modu erraz batean komunikatu ahal izango da gurekin.
- **Ikusgaitasuna:** Erabiltzaileak ahalik eta klik gutxien egitea nahi dugu informaziora iristeko. Gazte gehienak mugikorrek aritzen dira eta, beraz, hemen ere informazioa agerian jartzea komeni da.
- **Irudiak optimizatuta egongo dira beti:** Gehienez ere 1 GB-ko tamaina izango dute igoko ditugun irudiek. Hala ere, komenigarria da 800 K baino gutxiago izatea. Era berean, ez ditugu irudi oso handiak igoko. **Zergatik?** Erabiltzaile gehienak tablet edo mugikorren bidez sartuko dira gure euskarrira eta argazkiek pisu gutxi izango dute, pantailan modu erraz batean ikusi ahal izateko. *.jpg* formatua erabiltzea komeni da beti. Gauza bera gertatuko zaigu beste hainbat dokumenturekin ere, adibidez, *.pdf* formatuak. Ondo dago erabiltzea, baina betiere tamaina egoki batean.
- **Erabiltzailearen parte-hartzea sustatu:** Gure zerbitzuak sare sozialak baditu, euskarrian modu argian jarriko ditugu. Erabiltzailearekiko harremana sendotzeko modu bat izan daiteke. Gainera, gure sare sozialetan haien iritzia edo interesak partekatzera gonbidatuko ditugu.


Komenigarria da komunikatzen dugun guztiak ondoan sare sozialetan banatu ahal izateko aukera izatea.

Sare sozialen estiloak koherentzia osoa izango du webgunearekin, bai diseinuan, bai idazkeran ere.

- **Gaztematikaren estiloa kontuan izan:** Gaztematikaren hauspoan sortzen diren toki mailako nahiz bestelako webgune guztietan markak Interneten izan behar duen presentziarako irizpide orokorrak erabiltzea gomendatzen da. Web-orria udalaren barruan kokatuta badago, koherentzia izango du hark erabilitako estiloarekin, baina Gaztematikaren koloreak eta logotipoaren erabilerak errespetatuko dira.

Gainera, haur, nerabe eta gazteen sustapenaren ataria izango da gurea; beraz, badaude hainbat jarraibide hizkuntza eta idazkera-estiloari dagozkienak. Kontuan hartzeko elementuak izango dira ([Ikusi komunikazioari buruzko gomendio desberdinak](#)).

- **Erantzukizuna:** Nor ordezkutzen dugun jakin behar dugu, eta baita zer, nola eta non komunikatu. Kontuan hartu behar dira sare sozialen bizikidetzara-arauek eta erabilera-arauek. Ez da iritzi pertsonalik emango.
- **Hurbileko estiloa:** Seriotasunetik eta formaltasunetik ihes eginez, baina errespetu osoz jokatu da; galderak beti erantzunez eta feedbacka bilatuz. Garrantzitsua da hirugarren pertsona ekidin eta pluraleko pertsonan hitz egitea gutaz ari garenean eta bigarren pertsonan hartzaileari zuzentzen gatzaizkionean.
- **Irudiak eta bestelako baliabideak:** Ikus-entzunezkoek oro har dinamismoa gehituko diete gure sare sozialei. Pieza erakargarriak, motzak eta argiak erabiliko ditugu.
- Irudi eta baliabide hauek erreminta paregabea izango dira berdintasuna sustatzeko, era guztietako bazterkeria saihesteko, eta gazteen irudi homogeenari aurre egin ahal izateko.





Kasuz kasu

- **Udalak ez du baliabiderik, zer egin dezaket?**

Webgunean egoteko aukerarik ez izanez gero, **sare sozialak** erabiliko ditugu tresna nagusi gisa. Komenigarria da kanal bat baino gehiago sortzea, eta kanal bakoitzean mezu zehatz bat zabaltzea, nahiz eta mezu bera kanal desberdinetan errepika daitekeen. Honakoak dira kanal nagusiak:

- **Instagram:** Gazteek gaur egun gehien erabiltzen duten sare soziala da. Argazkiak dira protagonista. Ekintzen informazioa dokumentu batean jar dezakegu eta argazki gisa igo dokumentu hori.
- **Facebook:** Erabiltzaile gehien dituen sare soziala da, nahiz eta denbora gehiago pasatzen duten TikTok edo Instagramen. Beraz, komeni da bertan egotea. Kanal hau erabiltzen dutenen profila oso zabala da: gazteak, gurasoak, helduak, herriko eragileak...
- **X (Twitter):** Informazioa zabaltzeaz gain, informazio-iturri nagusia izango da. Herriko erakunde, eragile eta gazteei jarraitzea komeni da.
- **Youtube:** Ikus-entzunezko piezek balio handia dute; gure lanari balio erantsi handia eman diezaiokegu kanal honen bidez. Gainera, edukia erabiltzaileen artean elkarbanatzeko oso egokia da.

Oharra:



*Sare sozialak aukera ona izan daitezke herrian haur, nerabe eta gazteentzako antolatzen ditugun ekintzak edota zerbitzuen informazioa zabaltzeko, baina horiek martxan jarri baino lehen, hausnarketa txiki bat egitea gomendatzen dugu: **zer lortu nahi dugu? Zein izango da helburua? Nola planifikatuko dut sare sozialak elikatzea?** Ez da komeni sare sozialak ireki eta gero ez mantentzea.

* Sare sozialen aukera baliabideak ez dituztenen atalean txertatu da, baina, noski, aukera hori kasu guztietan baloratu eta kontuan hartu beharko da.

- **Udalaren webgune orokorrean egoteko aukera dut, zer argitaratuko dut?**

Honako hau litzateke gutxieneko informazioa:

- **HNGen sustapen-arloaren datuak:** telefonoa, helbide elektronikoa, helbidea.
- **Herriak dituen balio anitzeko zerbitzuak:** zein diren ordutegia, telefonoa.
- **Sare sozialetarako loturak:** sare sozialik izanez gero, hauek erabiliko ditut informazioa eguneratuta zabaltzeko, eta webgunean lotura jarriko dut.
- **Intereseko estekak:** gaztematika.eus, gipuzkoangazte.eus, gazteaukera.eus, KZgunea...

The screenshot shows the website for Hernani City (HERNANIKO Udala). The main navigation bar includes: VIVE HERNANI, CONOCE HERNANI, AYUNTAMIENTO, TABLÓN DE ANUNCIOS, UDAL IREKIA, CONTACTO, and EN LA RED. A search bar is located in the top right corner.

The main content area features a banner for "Jakingo bazenu zein ederra den zu euskaraz entzutea*" with a sub-header "El ayuntamiento de Hernani ofrece ayudas económicas para aprender euskara. Consulta, aprende, y disfruta!". Below this is a navigation breadcrumb: INICIO / Vive Hernani / A tu servicio / Servicios agrupados por tema / POLÍTICAS SOCIALES / Haur, Nerabe eta Gazteria Aritza.

The section title is "Infancia, Adolescencia y Juventud". The main content area is divided into several sections:

- Gaztetu:** A circular logo with the text "Gaztetu" and "HERNANI" below it. The text describes the area's objective to promote the integral development of children and adolescents through educational and recreational activities.
- Contacto:** A box containing contact information for Hernani City, including the address (Aritzabal kalea, 7 behea), phone numbers (943 57 54 35 / 943 33 70 41), WhatsApp (605 71 56 07), and email (gazteria@hernani.eus). It also lists social media handles for Twitter (@gaztetuhermani), Instagram (@gaztetuhermani), and Facebook (@gaztetuhermani).
- Noticias:** A list of news items:
 - 01-08-2023: "Se renuevan dos parques infantiles, en Zikuñaga y Elizatxo"
 - 28-06-2023: "ERAKUNDE-ADIERAZPENA: LGBTI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna"
 - 19-06-2023: "Ozen eta garbi adierazi nahi dugu ez dugula onartuko jaiak erasotzaileen eta diskriminatzaileen aterpea bilakatzea"
 - 13-06-2023: "Haurren eta nerabeen babesarekin konprometitutako eskola da Txirrita"
- Servicio información:** Represented by a pink 'i' icon in a circle, with a "Detalles" button below.
- Cursos:** Represented by a collage of photos, with a "Detalles" button below.
- Locales de jóvenes:** Represented by a yellow starburst with the text "HERNANI GAZTE LOKALAK", with a "Detalles" button below.
- Aula de estudio:** Represented by a green 'G' icon in a square, with the text "iKAS GELA" below it, and a "Detalles" button below.

At the bottom right, there is a "Tweets de" section with a plus sign icon.

• Udalaren webgunean banago jada, zer hobekuntza egin ditzaket?

- **Informazioa eguneratuta dagoela ziurtatu:** Bai zerbitzuei eta HNGen sustapen-arloari dagozkien loturak (.eus loturak txertatu), bai sarekoak (gaztematika.eus, gipuzkoangazte.eus), eta baita intereseko loturak ere.
- **Sare sozialetarako etiketak:** Sare sozialik izanez gero, horiek erabiliko dira informazioa eguneratuta zabaltzeko, eta webgunean lotura jarriko da.
- **Udal-buletinean egotea:** Udalak bulletina argitaratzen badu, komeni da, gutxienez behin edo behin, bertan gure arloko informazioa zabaltzea. Horretarako, kontuan izango da udaleko komunikazio-arduraduna. ([Ikusi udaleko komunikazio arduradunarekin harremana izateko gomendioak infografia](#))
- **Aktualitatea:** Bertan, komunikatu nahi dugun guztia joango da. Daukagun informazio guztitik aukeratu egingo dugu zer komunikatu. Horretarako, irizpide nagusia izango da erabiltzailearentzat interesekoa izatea. Gutxienez, astero berri bat igoko dugu. Garrantzitsua da informazioaren aktualitatean konstantzia izatea. Zerbitzu guztietako informazioa joango da hemen. Horren helburua da erabiltzaileak informazio osoa klik bakar batean izatea. Hilabeteko agenda aurkezteko, adibidez, formatu hau erabiliko dugu.
- **Zerbitzuak:** Eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak azalduko dira bertan, baita ordutegia, kokapena eta kontaktua ere. Ahal den neurrian, informazio osoa maila berean azaltzea komeni da, hau da, erabiltzaileak klik bakar bat eginda zerbitzuen informazioa ikusi ahalko du.

Oharra:



KOMENIGARRIA: HAURRENTZAKO ZERBITZUA (HZ):
ordutegia xxx, non xxxx, kontaktua xxxx, argazkiak.

EZ KOMENIGARRIA: HAURRENTZAKO ZERBITZUA (HZ):
Bertan klik egin eta orrialde berri batean informazioa azaltzea.

Sail honetan joango dira Gazte Informazioko Zerbitzua (balego), Haurrentzako Zerbitzua edo Nerabeentzako Zerbitzua. Bakoitzaren argazkiak jartzea komeni da, erakargarriagoa egiteko modu bat da.

Adibide gisa, Gipuzkoako hainbat udalek (Elgoibar eta Oñati) informazioa nola azaltzen duten:

Bilurak, ordonantzak... Udak zerbitzuak Udak albisteak Kultura, kirola, zinea... Izapideak egin Ezagutu herria Jari gurekin harremanetan

Zerbitzuak > Haur eta gazteria

Haur eta gazteria

Eginkizun eta jarduerak nagusiak:

Haur, nerabe eta gazteei, euren haurtzaroen, nerabezaroen eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, berezko balioa duen bizi etapa gisa eta heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa.

Eskaintzen diren zerbitzuak:

- Haurrentzako zerbitzua(Ludoteka)
- Nerabeentzako zerbitzua (Gaztelekua)

Zehar-lerroak:

- Hizkuntzaren normalizazioa: Zerbitzu eta programa guztietan euskararen erabilera bermatzea
- Gizonen eta emakumeen parekidetasuna: zerbitzu eta programa guztietan neska eta mutilak aukera berberak izatea.
- Inklusioa eta inklusioa: haur, nerabe eta gazte guztiak gizartearen sartzea bermatzea.

Haur eta gazteria - Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Salla


Alta Agirre plaza 3, 1. solairua ezk.
20870 ELGOIBAR
[Noia /nisi/](mailto:Noia@nisi)

Telefonoa:
943 74 10 50

Helbide elektronikoa:
gazteria@elgoibar.eus

Osaera:
Ariburua: Aitor Iriondo Unamunzaga
Teknikaria: Malalen Aranguren Gurrutxaga

Lotutako berriak:



ASTE SANTUKO

Otsailaren 15ean zabalduko da Elgoibarko Udak Kiroi Patronatuaren 2024ko Aste Santuko Kiroi Kanpusean parte hartzeko izen-emate epea

2024-02-12
2012 eta 2017 urte bitartean (biak berrak) jaiotako haurrek, hau da, LH1etik LH6ra arte, parte hartu dezakete: Elgoibarko Udak

Informazio interesgarria:

ELGOIBARKO HAURRENTZAKO ZERBITZUA (UDAL LUDOTEKA)

HILABETEKO PROGRAMAZIOA

LUDOTEKAKO ZERBITZUAN PARTE HARTZEA BAIMENTZEKO FITXA

ELGOIBARKO NERABEENTZAKO ZERBITZUA (GAZTELEKUA)

HIL HONETAN GAZTELEKUAN

GAZTELEKUKO ZERBITZUAN PARTE HARTZEA BAIMENTZEKO FITXA

Kantak, jolasak eta "hazi hezi" aldizkaria banatuko die Udalak haur jaiaberrien gurasoei

2024-02-12
Gurasoek HAZen jasoko dute Udalak transmisiorako prestatu duen material guztia, haurra erroldatzera joaten direnean. Haur jaiotze berrin gurasoek euskararen transmisioan...

Hasiera > Oñatiko Udala > Zerbitzuak > Gaztelekua

Gaztelekua

Aisialdiaren eta heziketaren arteko konbinazioan oinarrituz, haur eta nerabeak bizitzarako trebatzea jomuga duen zerbitzua. Haur eta nerabe guztiei zuzendutako elkargune inklusibo bat bermatzea du helburu, egunerokoan beren arteko harremanak lantzeko espazio bat bermatuz eta haien protagonismoa edota inplikazioa sustatuz.

Zerbitzua, adinaren arabera, hiru gunetan dago banatuta: Sotoa (0-7 urte), Kuboa (7-12 urte) eta Topalekua (12 urtetik gorra).

Harremanetarako

- Gazteleku orokorra: 943 71 82 57
gaztelekua@onati.eus
- Topalekua: 654 20 15 64 gaztetopalekua@onati.eus
- Kuboa: 658 72 56 79 gaztekuboa@onati.eus



ORDUTEGIA

- Topalekua**
 - Astelehena itxita.
 - Asteartetik ostegunera 17:00 - 20:00
 - Ostiral, larunbat eta jai-egun bezperak 17:00 - 20:30
 - Igandeak 17:00 - 20:00
- Kuboa**
 - Astelehena itxita.
 - Asteartetik ostegunera 16:30 - 20:00
 - Ostiralak 16:30 - 20:30
 - Larunbat eta jai-egun bezperak 17:00 - 20:30
 - Igandeak 17:00 - 20:00
- Sotoa**

- **Intereseakoak:** Aukera bat da, gure ustez sail batek bisita asko izango baditu, lehenengo maila honetan jartzea. Erabiltzailearentzat ikusgarria izango da.
 - **Dirulaguntzak:** Gai honi buruzko informazioa eta estekak hemen joango dira.
 - **Agenda:** Gure zerbitzuen agenda joango da bertan. Komenigarria da, informazioa idatzita azaltzeaz gain, deskargatu ahal izateko moduan ere aurkeztea (.pdf formatuan adibidez).
- **Esteka interesgarriak:** Erabiltzailearen interesekoak diren webguneak izendatuko ditugu bertan: gaztematika.eus, gipuzkoangazte.eus, gazteaukera, gaztebulegoa.com, bakoitzaren herriko interesgarriak...

Ez da komeni 6-7 atal nagusi baina gehiago jartzea. Era berean, ez da gomendatzen azpi-atal gehiegi jartzea, erabiltzaileari ahalik eta errazen nabigatzeko moduan azaldu behar baitaio informazioa. Maila desberdin asko eginez gero, erabiltzailea galtzeko arriskua dago.



- **Geure domeinua: HNGen sustapeneko webgunea sortzeko zer egin behar dut?**

Badaude doako hainbat eduki-kudeatzaile; ezagunenetakoak *Wordpress* eta *Blogger* dira. Modu erraz eta azkar batean webgune forma duen atala sortu ahal izango dugu. Gainera, edukiak tamaina desberdinetara moldatuko dira; hartara, bai mugikorretik, bai tabletetik arazorik gabe ikusi ahal izango dira edukiak.

Erabiltzaileek harpidedun egiteko aukera dute; eduki berri bat txertatzen den bakoitzean, nahi izanez gero, erabiltzaileak abisua eta informazioa jasoko ditu bere helbide elektronikoan. Geure buletina ere sortu dezakegu erabiltzaileak azken berriak jaso ditzan. Buletinak (newsletter-ak) sortzeko doako aukera asko ditugu: ezagunenetakoak Mailchimp eta Acumbamail dira.

Formularioak sor ditzakegu. Erabiltzailearen iritzia jasotzeko modu azkar eta zuzena dira hauek. Sare sozialak ere horretarako bide azkarra dira. Sistema honi esker, zozketak etab. egin ahal izango ditugu.

Blogger-en egindako adibidea: Zarautzgazte





Kontuan izan beharreko beste hainbat puntu

- **Proiektua finkatu:** Webgune bat eratzeko, edo udalaren webgunean geure leiho propioa sortzeko orduan, lehendik finkatuta izan beharko ditugu hainbat atal. Proiektua zenbat eta zehatzagoa izan, orduan eta arazo gutxiago sortuko zaizkigu haren eraketa-prozesuan. Hona hemen ezinbestekoak diren hainbat puntu:

- **Domeinua:** Gure udal barruko atal bat izanez gero, udalaren domeinuaren atala izango dugu. URL-ak bete behar dituen ezaugarriei jarraiki, honakoaren antzekoa izango da gure ataria: www.udalarenizena.eus/gazteria. Gure ataria zenbat eta maila goragokoa izan gure ataria, aukera gehiago izango ditu bilatzaileetan lehenengo postuetan azaltzeko, hau da, erabiltzaileek gu aurkitzeko. URL-an ez dira zenbakiak jarriko, eta ahalik eta garbiena eta motzena izan dadin saiatuko gara.


Geure webgunea sortzeko asmoa badugu, domeinua erosi beharko dugu. Gaur egun eskaintza izugarria da eta zaila izan daiteke zein aukeratu jakitea. Irizpide ekonomikoen gain, faktore garrantzitsuak dira zer eskaintzen duen eta enpresa non kokatuta dagoen. Arazo teknikorik izanez gero garrantzitsua da ulertu ahal izango dugun hizkuntza batean komunikatu ahal izatea enpresarekin. Geure domeinua izateagatik, urtean batez beste 15 euro inguru ordaindu ohi da. *.eus*, *.com* bezalako luzapenen artean aukeratuko dugu (posible bada *.eus* erabiltzea komeni da).

- **Helburua:** *Zergatik? Norentzat? Zertarako?* Informazio hori guztia idatzita izango du proiektuak. Galdera horien erantzunak markatuko ditu ondoren zer komunikatuko dugun, zer estilotan egingo dugun, zer diseinu-linea erabiliko dugun, eta abar..
- **Etiketak eta kategorizazioa:** Oso garrantzitsua da webgunean argitaratuko dugun informazio guztia ondo etiketatzea eta kategorizatzea.

Zer da etiketatzea? Informazio bat bilatzaileetan aurkitu ahal izateko sartutako edukietan garrantzitsuak diren hitzak izango dira etiketak. Hau da, gure informazioa modu errazean bilatu ahal izateko, erabiltzaileak bilatzailean sartuko duen testua. Adibidez: udalekuak martxan dira! (etiketak: uda, haurrak, udalekuak).

Kategorizazioa, aldiz, webgune barruan informazioa zer ataletan joango den azaltzen duen saila da. Adibidez: udalekuak martxan dira! (kategorizazioa: berriak-aisia.)

- **Zerbitzu berdina lantzen duten beste udalak aztertu:** Lagungarria izango zaigu, gure planifikazioa egin aurretik, produktu edo zerbitzu berdina lantzen duten beste udalek nola komunikatzen duten ikustea. Ondo eginak kontuan izango ditugu, eta, akatsen bat identifikatuko bagenu, zer ez egin jakiteko erabilgarria izango zaigu. Ondokoen esperientziatik ikas dezakegu.
- **Ebaluazioa:** Ondo eginak eta akatsak identifikatzeko berebizikoa zaigu burututako lanaren ebaluazio puntualak egitea komenigarria da. Komeni da gutxienez sei hilabetean behin komenigarria da webgunearen hainbat datu ezagutzea: adibidez, zeintzuk izan diren atal bisitatuena, zer ataletan pasa duen erabiltzaileak denbora gehien, sare sozialetan izan dugun jarduera, etab.. Web-orrien metrikak jasotzeko orduan Google Analytics 4 (GA4) programa da nagusia. Gure webguneak kode bat izango du, kode hori Analytics-en txertatu eta informazio osoa jasoko dugu. Udalean webgunearen mantenua daraman pertsonak lagunduko digu hori txertatzen, adibidez.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



GAZTEMATIKA
Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea
Red de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa

